

UDAKO
AISIALDI
ESKAKINTZA
2026

zirimola

Badatorrela uda!

Eta udarekin batera, lagun berriak, gozamina, emozioak, bizipen ahaztezinak... hamaika abentura eta esperientzia zoragarri! Zatoz Zirimolarekin batera **euskarazko aisialdi hezitzaileaz** goatzera!

Mimoz eta ilusioz prestatutako udako eskaintza duzue honako hau, **adin eta interes desberdinetara** egokitutako proposamenekin. **Euskal Herriko haur eta gazteen saretzea** bultzatu nahi dugu, tokian-tokiko herriak, txokoak, naturguneak ezagutuz eta horietan gozatuz. **Bizi-esperientzia aberasagarriak eta seguruak** eskaintzeko dinamika zein jarduera anitzak antolatu ditugu, parte-hartzaile guztien **autonomia, sormena eta bizikidetza** garatzeko aukera paregabea izango duzue giro atsegina eta goxoan.

Zirimolako Hezitzaile Eskolan formatutako eta esperientziadun hezitzailez osatutako **talde-profesionalaren** eskutik, balio hezitzaileetan oinarritutako aisialdian murgilduko zarete **euskaratik eta euskaraz**.

Bagatoz indar berriz. Bazatoz?

zirimola

UDALEKU IREKIAK

	1.txanda Ekainak 22-26	2.txanda Ekainak 29- uztailak 3	3.txanda Uztailak 6-10	4.txanda Uztailak 13-17	5.txanda Uztailak 20-24
eman hegoak	2018-2022 (HH3-LH2)	2018-2022 (HH3-LH2)	2018-2022 (HH3-LH2)	2018-2022 (HH3-LH2)	2018-2022 (HH3-LH2)
kirolez blai	2014-2017 (LH3-LH6)	2014-2017 (LH3-LH6)	2014-2017 (LH3-LH6)	2014-2017 (LH3-LH6)	2014-2017 (LH3-LH6)

UDALEKU ITXIAK (7 EGUN)

	Ekainak 21- 27	Ekainak 28- uztailak 4	Uztailak 5-11	Uztailak 12-18	Uztailak 19-25
euskara mugara (Lapuebla de Labarka)		2015-2017 (LH3-5)	2015-2017 (LH3-5)	2015-2017 (LH3-5)	2015-2017 (LH3-5)
natura arnas (Allo)	2014-2016 (LH4-6)	2014-2016 (LH4-6)	2014-2016 (LH4-6)		
uretan blai (Lekeitio)	2013-2014 (LH6-DBH1)	2012-2013 (DBH1-2)	2014-2015 (LH5-6)	2012-2013 (DBH1-2)	
uretan blai (Zurriola)		2014-2016 (LH4-6)	2012-2013 (DBH1-2)		
uretan blai (Bermeo)			2012-2013 (DBH1-2)	2014-2015 (LH5-6)	
uretan blai (Zarautz)		2012-2013 (DBH1-2)	2014-2015 (LH5-6)		

UDALEKU ITXIAK (10 EGUN)

	Ekainak 25 -uztailak 4	Uztailak 12-21
gazte egonaldiak (Bermeo)	2010-2012 (DBH2-3-4)	
gazte topaketak (Allo)		2010-2011 (DBH3-4)
uretan blai (Zurriola)		2013-2014 (LH6-DBH1)
uretan blai (Zarautz)		2012-2013 (DBH1-2)

EMAN HEGOAK



Ekainean eta uztailean zehar **ikastolan bertan** egiten diren **goizeko udalekuak** dira eta **HH eta LHko ikasleei zuzenduta** daude. Programazioa adin-tarte bakoitzari egokitzen zaio, eta aisialdi euskalduna, inklusiboa eta hezitzailea eskaintzeko helburuz, aste bakoitzeko interesgune jakin bat duen jarduera-multzoa garatzen da.

NOIZ

Ekainaren 22tik uztailaren 24ra.
5 txandatan, goizez.

NORENTZAT

2018-2022 artean jaiotakoentzat **(3-8)**.

NON

Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko **galdetu zure ikastolan**.

KIROLEZ BLAI

MUGITU, JOLASTU ETA GOZATU KIROLAREKIN!



Kirol ezberdinak ezagutzeko, mugimendu askatasunaz gozatzeko eta lagun artean ondo pasatzeko goizeko **udaleku irekiak** dira.

LHko nagusienei zuzendatutako egitasmo honetan aste bakoitzean **kirol-sekuentzia ezberdin** bat proposatuko da, zikloen baitan adinera egokitutako **erronkekin**.

NOIZ

Ekainaren 22tik uztailaren 24ra.
5 txandatan, **goizez**.

NORENTZAT

2014-2017 artean jaiotakoentzat **(8-12)**.

NON

Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko **galdetu zure ikastolan**.

EUSKARA MUGARA

SORTU, IZAN, GOZATU!



Euskara mugaraino eramango dugu, aisialdi hezitzaileaz gozatuz, Arabar Errioxako ertzak ezagutuz eta bertako baliabide kultural eta naturalak dastatuz. Astebetez, **Lapuebla de Labarkako Asa ikastolan** ekintza ludikoz beteriko elkarbizitza-gunea sortuko dugu. **Mahastietan, upategietan eta Ebron ere euskaraz bizi gara!**

NOIZ

- 1. txanda: ekainaren 28tik uztailaren 4ra.
- 2. txanda: uztailaren 5etik 11ra.
- 3. txanda: uztailaren 12tik 18ra.
- 4. txanda: uztailaren 19tik 25era.

NORENTZAT

2015-2017 artean jaiotakoentzat (**8-11**).

NON

Asa Ikastolan (Lapuebla de Labarka).

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

285€

NATURA ARNAS

JOKO, JOLAS ETA PLAST!



Urederra, 2025-06-25

Lizarraldea **euskal jolas eta jokoen bitartez** ezagutzeko aukera paregabea. Allok eta haren inguruak ematen dizkigun baliabide naturalak uztartuz, udagiroan astebeteko egonaldiak egingo ditugu. **Mendi-irteerak, euskal pilota, herri-kirolak, igerilekua, tailerrak, gaubelak...** a zer nolako plana!

NOIZ

- 1. txanda: ekainaren 21etik ekainaren 27ra.
- 2. txanda: ekainaren 28tik uztailaren 4ra.
- 2. txanda: uztailaren 5etik 11ra.

NORENTZAT

2014-2016 artean jaioetakoentzat **(9-12)**.

NON

Alloko **La Tahona etxean**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

310€

GAZTE EGONALDIAK

ZEINEN EDERRA IZANGO DEN!



Gazteentzako bereziki antolatutako egonaldi hauetan **elkarbizitza eta euskararen aberastasuna ardatz** izango ditugu. Norbanakoen izaera eta nahietatik abiatuta eta inguruan ditugun espazio natural eta kulturalak baliatuz, **taldean gozatzeko hainbat ekintza** ludiko-hezitzaile antolatuko dira. Jolas eta jokoak, irteerak, ur-kirolak, lagunak, gaubelak... oporrak lagunartean ederragoak direlako!

NOIZ

Ekainaren 25etik uztailaren 4ra
(**10 eguneko txanda**).

NORENTZAT

2010-2012 artean jaiotakoentzat
(**13-16**).

NON

Bermeoko **Eleizalde Ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

475€

GAZTE TOPAKETAK

GAZTEA NAIZ ETA ZER!



Euskal Herriko lurralde ezberdinetako **gazteen topagunea** izango da La Tahona aterpetxea. **Gazteen interesak, motibazioak eta beharrizanak aintzat hartuz**, askotariko ekintzez eta dinamikez osatutako aste ludikoa izango da bertan egingo duguna. Gazteek, jolasak ematen duen gozamenerako aukera baliatuz, berdinen arteko harremanetan sakontzeko aukera paregabea izango dute.

NOIZ

Uztailaren 12tik 21era
(**10 eguneko txanda**).

NORENTZAT

2010-2011 artean jaioetakoentzat
(**14-16**).

NON

Alloko **La Tahona etxean**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

375€

URETAN BLAI



Euskal Herriko kostan barrena murgilduko gara eta urak eta itsasoak kostaldean, pertsonengan eta kulturan izan duten eragina biziko dugu. Modu horretan, **haur eta gazteek** naturaz goatzeko aukera izango dute, **itsas mundua ezagutuz** eta sentituz, itsasoan eta herrietako inguru ederretan egingo diren **jolasen, jokoen eta jarduera ludikoen** bidez. Itsasoa, lagunak eta oroitzapenak udako protagonistak bilakatuko dira!

NOIZ

Uretan Blai Lekeitio

- 1. txanda: ekainaren 21etik 27ra.
- 2. txanda: ekainaren 28tik uztailaren 4ra.
- 3. txanda: uztailaren 5etik 11ra.
- 4. txanda: uztailaren 12tik 18ra.

Uretan Blai Zurriola

- 1. txanda: ekainaren 28tik uztailaren 4ra.
- 2. txanda: uztailaren 5etik 11ra.
- 3. txanda: uztailaren 12tik 21era.
(10 eguneko txanda)

Uretan Blai Bermeo

- 1. txanda: uztailaren 5etik 11ra.
- 2. txanda: uztailaren 12tik 18ra.

Uretan Blai Zarautz

- 1. txanda: ekainaren 28tik uztailaren 4ra.
- 2. txanda: uztailaren 5etik 11ra.
- 3. txanda: uztailaren 12tik 21era.
(10 eguneko txanda)

NORENTZAT

2012-2016 artean jaiotakoentzat (**9-14**).
Kontsultatu txanda bakoitzaren adin-tartea udalekuetako taulan.


NON

Lekeitioko **Azkue Ikastolan**, Donostiako **Zurriola Ikastolan**, Bermeoko **Eleizalde Ikastolan** eta Zarauzko **Salbatore Mitxelena Ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

7 eguneko txanda: **360€**

10 eguneko txanda: **475€**



IKASTOLAK

INFORMAZIOA

WEB ORRIAN: www.zirimola.eus
ZURE IKASTOLAKO IDAZKARITZAN

NOLA MATRIKULATU

ON-LINE: www.zirimola.eus
NORBERE IKASTOLAN
(Eman Hegoak eta Kirolez Blai)

ARRETA ORDUAK

Astelehena-osteguna
8:30-13:30/14:30-16:30
Ostirala
8:30-14:30

Tlf.: (0034) 943 369637/ 943 445108
Emaila: zirimola@ikastolak.eus

IZEN EMATEA

Martxoaren 4tik maiatzaren 14ra

www.zirimola.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Guipúzcoa



GORAIN
GIPUZKOA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ERB. HIZKUNITZA
POLITIKAZ GARA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Interreg
POCTEFA
HEZHI



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE
EUROPAR BATASUNAK
kofinantzatua

AFO MEF